



Fitxa teknikoa

Kopetilun. Émile Jadoul. Tarttalo arg. 2015

Liburuaren aurkezpena

Hazten ari da Lontxo txikia, baina hazten den neurrian, aldi behin, korapiloak egiten zaizkio tripetan, edota buruan, edota bihotzean, agian. Lehenagotik, komunean bakarrik pixa egiten ikasi behar izan zuen gau ilunean bere ohe goxotik altxata. Bere gurasoak ondo-ondoan ditu haren korapiloak askatzen laguntzeko, baina hala ere Lontxok sentitzen duena sentitzen du... Liburutxo honetan anaia-arreba txiki bat etortzen zaiola dakienean, Lontxo kopetilun ibiliko da bere etxeko erregetza datorrenaren eskuetan utzi beharko duelakoan...

Nola kontatu

- Ilustrazioak oso adierazgarriak dira eta argudioa garatzen dute orriz orri.
- Hala ere, ilustrazioez gain bizipenak daude eta bizipen horiek berak dituzte gelan dauden haur batzuk
- Ikustrazioak eta haurren artean egon behar du kontakizuna, narrazioa. Lontxoren bizipen eta gatazka azalduko dira, haurren emozio ezkutuei hitzak jartzen laguntzeko.

Proposamenak bideratzen

- Anaia-arreba txikiak dituztenei hitza eman: jostailuak puskatzen dizkiete, ez dakite haiekin jolasten...?
- Lotan uztenzaitu zure anaia-arreba txikiak?
- Haserre jartzen zaitu horrek?

Proposamenak zehazten

- Nola haserretzen zara zure anaia- arreba txikiarekin?
- Zer esaten diozu?
- Zer esaten dizu berak?
- Zer esaten dizute gurasoek?
- Horiek denak diktatu zure irakasleari...